

ELEBITASUN OREKATUAREN MITOA

Gaur ikusiko dugun gaia zera izango da, zernolako baldintzetan gerta daitekeen bi hizkuntza guztiz parean egotea, hots, orekaturik egotea.

Elebitasun orekatua sikolinguistikoki eta soziolinguistikoki lortu behar da, eta bi arlook nahiko lotuta badoaz ere, bereizketa egiten da metodologi aldetik askoz errazagoa delako.

Duela berrogeitamar urte saio txiki batzu egiten hasiak direla, hau da, test antzekoak; erantzunaren azkartasuna edota, aberastasuna neurtzeko. Lehenengo elebakarrekin eta gero elebidunekin eginez eta, frogatu da elebidunek ez dutela elebakarren maila bera adierazten edo ematen. Beraz, zergatik ez den posible elebitasun orekaturik ikusten saiatuko gara.

Hizkuntza batean hiru maila bereiz daitezke; **fonologia, morfosintaxia eta hiztegia**; alde batetik, kate mintzatuaren fonologian, soinuak,... morfosintaxian deklinabidea, aditza, e.a.,... eta azkenik, hiztegia. Orduan elebidun batek bi sistemak menderatu behar ditu, inolaz ere nahastu gabe, baina praktikan posible ote?

Gure kasuan adib., har ditzagun txistukariak adibide gisa, (**ts, tz, tx**), gure ortografian 3 frikari eta horien kideko beste 3 afrikatu ditugu, (**s, z, x**). Erabiltzen ditugun sei soinuok korrelazio batean daude. Hauen ondoan sartzen baditugu frantsesaren edota, gaztelaniaren fonema bilduma guztiz desberdinak dira. Eta horrelako kasuetan interferentziak sortzen dira (**atso/atzo**), (**ertzantza/erchancha**), eta horrela adibide piloa eman daiteke, eta guzti hau fonologia mailan besterik ez. Beraz, oso zaila da elebidun batek bi sistemak menderatzea eta ongi bereiztea.

Azentuaren kasuan ere diferentzia izugarria da euskara eta gaztelaniaren kasuan

adibidez. Euskarazko azentu normala **ezkerraldeko 2.na** delako. Beraz oso zaila da sistema horiek bakoitza bere aldetik bereiztea, erregela fonologikoak, azentuak, morfosintaxian ergatiboa, e.a., e.a.

Beraz, eta bukatzeko sikolinguistikaren aldetik **elebitasun orekatua gezurra da**. “Slogan” politikoa izan daiteke baina, inoiz ez zientzia, zientziaren aldetik elebitasun orekaturik ez dagoelako.

Bestalde, aipatu behar dugu **elebitasun nahasia eta elebitasun koordinatua**. **Elebitasun nahasia** izango litzateke familia berean, bai aitak eta baita amak ere astelehenetan hizkuntza bat mintzatzea, astearteetan bigarrena, etabar. Ikus dezakezue, oso zaila da nahiz eta, horrelako frogak eginak diren. Horrek esan nahi du kontestu berean jasotzen den hizkuntzaren esperientzia, konnotazioak..., berdinak direla. Baina noiz gertatzen da hau?

Elebitasun koordinatua aldiz, zera izango litzateke, pertsona batek familian hizkuntza bat eta kalean beste hizkuntza bat erabiltzea, baina jakina, bi mundu desberdin direnez gero, bi eskala desberdinen jabe dela adierazi nahi du, esan nahi baita, hizkuntza batetik bestera pasatzean, kontestua ere aldatu egiten dela, eta elebitasun koordinatu horren kasuan, hitz bakoitza bere estabilitate osoaren jabe da eta, oso zaila da bi mundu desberdin horiek berdintzea. Adib., maitasuna aldetik ez da gauza bera “kuttun” eta “cariñito mio”, hots, kontestua eta adierazia bera ere desberdinak direlako. Eta gurasoetako batek hizkuntza batean eta besteak beste hizkuntzan egiten duten kasuetan ere oreka mantentzea oso zaila da, koordinatua izateko ordu berberak eman beharko lituzkeelako bakoitzak, hau da, amak bost ordu euskaraz egiten baditu, aitak ere beste bost ordu egin beharko lituzke, eta plan horretan ihardutea oso-oso zaila da.